



DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2021

LANBIDE

1. Pertsona ekintzaileentzako laguntzak.....	2
2. Errelebo-kontratua.....	4
3. Familia eta lana kontziliatzeko laguntzak.....	6
4. Enplegu-zentro berezietan desgaitasuna duten pertsonen lanpostuak mantentzeko laguntzak.....	8
5. Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzeko dirulaguntza, langabezia-prestazioa kobratzen dutenentzat.....	10
6. Desgaitasuna duten pertsonen enplegua lan-merkatu arruntean sustatzeko laguntzak.....	12
7. Enplegua sustatzeko tokiko laguntzak.....	13
8. Laneratzeko enpresei zuzendutako laguntzak.....	15
9. Laguntzak SINTEL enpresako langileei.....	17
10. Enplegu-zentro berezietako lanbide-jarduerari laguntzeko unitateak finantzatzeko laguntzak.....	19
11. Lehen Aukera Programa.....	21
12. Tokiko entitateek gazteak kontratatzea, 2014-2020 eperako Gazte Enpleguaren Programa Operatiboaren esparruan.....	23
13. Proiektu bereziak (Gizarteratzea + Formakuntza).....	25
14. Lehenagotz langabeei zuzendutako prestakuntza-ekintzak (82/2016 Dekretu, Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duena).....	27
15. HEZIBI programa – Formakuntza eta txandakako lana gazteentzat.....	29
16. Lehenagotz Euskal Autonomia Erkidegoko langile landunei zuzendutako enplegurako prestakuntza finantzatzeko diru-laguntzen deialdia.....	30
17. Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek garatzen dituzten prestakuntza-ekintza estrategikoak egiteko diru-laguntzen deialdia.....	32
18. Kontratatze konpromisoa duen prestakuntza.....	34
19. Kualifikazio txikiko gazteentzako prestakuntza.....	35
20. Emakume langabeen prestakuntza eta kontratazioa maskulinizatutako lanbideetan.....	36
21. Enplegu-nitxo berriak.....	37
22. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria.....	38
23. COVID-19aren ondoriozko aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen eragina jasan duten langileentzako ohiz kanpoko laguntzak (3. deialdia).....	40
24. COVID-19aren ondoriozko aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen eragina jasan duten langileentzako ohiz kanpoko laguntzak (4. deialdia).....	42
25. Lanbide-orientazioko ekintzak garatzeko diru-laguntzak.....	44
26. Laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak (30 urtetik gorako luzaroko langabeak) kontratatze laguntzak.....	47
27. Enplegu lagunduko jarduketetara bideratutako laguntzak.....	49



1.- Dirulaguntzen Programaren izenburua

Pertsona ekintzaileentzako laguntzak

2.- Araua

Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2021eko maiatzaren 25eko bilkuran hartutakoa, zeinaren bidez onartu baitzen pertsona ekintzaileentzako laguntzen 2021eko deialdia. (3419 Ebazpena, 2021/03/26koa - 117. EHAA, 2021eko ekainaren 16koa).

3.- Arauaren argitalpena, deialdia eta emakidaren ebazpena (Esteka EHAARA)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/06/2103419e.shtml>

4.- Dirulaguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak

EAEko ekintzaileei zuzendutako deialdia. Lau ildo hauek ditu:

- a) Ekintzaile izan daitezkeen pertsoneri zuzendutako laguntzak, enpresa-ideiak sortu, aztertu eta egituratzeko lanak egin ditzaten arduraldi osoan, ekintzailetako toki-proiektuen esparruan. (APEI: enpresa-ideiak garatzeko laguntzak).
- b) Tokiko ekintzailetza-proiektuen esparruan, negozio-ideia zehaztua duten ekintzaileek enpresa-proiektu berriak abian jar ditzaten bultzatzeko laguntzak. (APEA: enpresa-proiektu berriak abian jartzeko laguntzak).
- c) Enpresa-jarduera bat hasi duten eta hura sendotzeko laguntza ekonomikoa behar duten pertsonentzako laguntzak (APES: proiektua ezartzeko laguntzak).
- d) Enpresa-jarduera bati ekin dioten pertsonentzako laguntzak, jarduera hori sendotzeko. (APEC: enpresa-jarduera bat sendotzeko laguntzak).

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren exekuzioa, baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Lortutako emaitzak

Sortutako enpresa-kopurua: 856 (APES:181; APEC:675) + APEA: 204 enpresa-proiektu, JEGZ-aren balizko altak, laguntza- eta tutoretza-aldia amaitzean.

Laguntza ekonomikoa eskuratu duen ekintzaile-kopurua: 1.462 (APES: 181; APEC: 675; APEA:204 emandakoak; APEI: 402 emandakoak) .

Entitate laguntzaileen kopurua: 27

Aurrekontuaren exekuzioa

Deialdi honek arautzen dituen laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 3.705.000 eurokoak dira; horietatik, 2.305.000 euro 2021eko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 1.400.000 euro, 2022ko



konpromiso-kredituari, 32110– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren aurrekontuaren erabilera izeneko programan aurreikusitakoaren arabera.

2021ean exekutatuak aurrekontua: 2.072.112,50 €

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Aurreko ekitaldietan baino datu hobeak ematen dira, baita pandemiaren aurretik ere, eta, beraz, erabilgarritasun-programa hori gizartean eragina duen programa gisa hartzen da; izan ere, enplegua sortzeko alternatiba izaten jarraitzen du, besteren konturako enplegua sortzeko tasen igoera geldoaren aurrean, eta, gainera, batez ere, bizi dugun osasun- eta ekonomia-krisiak gehien zigortutako gazteen kolektiboari zuzenduta dago.

6.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Sortutako enpresa-kopurua:	550	Bukatu gabe 885 (APES:181; DEMA: 200; GAZTENPRESA: 300; APEA: 204)
Enpresa-ideia bat garatzeko eta enpresa-proiektua abiarazteko enpresa-ekimenak sustatzen dituzten pertsonen kopurua:	560	Bukatu gabe: 606 (APEA:204; APEI:402)
Jada sortuta dagoen eta martxan jartzeko, Jarraitzeko nahiz egonkortzeko dirulaguntza jaso duen enpresa-kopurua:	980	856



1.- Dirulaguntzen Programaren izenburua

Errelebo-kontratua

2.- Araua

Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2021eko apirilaren 21eko bilkuran hartutakoa, zeinaren bidez onartu baitzen errelebo-kontratuak sustatzeko 2021eko laguntzen deialdia. (2680 Ebazpena, 2021/04/22koa - 92. EHAA, 2021eko maiatzaren 12koa).

3.- Arauaren argitalpena, deialdia eta emakidaren ebazpena (Esteka EHAARA)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/05/2102680e.shtml>

4.- Dirulaguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak

30 urtetik beherako gazteen eta 45 urtetik gorako pertsonen enplegua sustatzen du, Lanbiden izena emanda daudenena eta enpresetan iraupen mugatuko kontratuekin lan egiten ari direnena. Xede hori betetzeko, diruz laguntzen dira enpresek gazteen kolektibo horrekin sinatzen dituzten errelebo-kontratuak, honako baldintza hau jarrita: kontratuak lanaldi osokoak eta iraupen mugagabeak izatea; edo, bestela, iraupen mugatukoak izanez gero, kontratua amaitu ostean edo bukatu aurretik mugagabe bihurtzeko konpromisoa hartzea hasieratik. Era berean, errelebo-kontratua duen pertsonak gutxienez 14.000€ irabazi behar ditu urtean. Kontratu bakoitzeko 8.400 €-ko laguntza emango da.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren exekuzioa, baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Lortutako emaitzak

Kontratatutako pertsona-kopurua: 116

Aurrekontuaren exekuzioa:

Deialdi honen xede diren laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 1.000.000 eurokoak dira guztira; horietatik, 600.000 euro Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren 2021eko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 400.000 euro 32110-Enplegurako programan aurreikusitako 2022ko konpromiso-kredituari.

2021ean exekutututako aurrekontua: 598.248 € (%60)

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina:

Beste urte batez, emaitzak aurreko deialdietakoak baino handiagoak izan dira. Agerikoa da oso baliagarria dela eta gizartean eragina izan dezakeela; izan ere, programa horren helburua da belaunaldien arteko erreleboa erraztea, plantillak gaztetuz, gazteak kontratatzen badira, edo esperientzia eta oraindik ere lan-ibilbide nahikoa duten pertsonak sartuz, 45 urtetik gorakoak kontratatzen badira (bi kolektibo horiek dituzte enplegua lortzeko zailtasun handienak).

6.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Gazteei egin beharreko errelebo-kontratuen kopurua:	65	67
45 urtetik gorakoei egin beharreko errelebo-kontratuen kopurua:	50	49
Parte hartu duen enpresa-kopurua: :	115	116



1.- Dirulaguntzen Programaren izenburua

Familia eta lana kontziliatzeko laguntzak

2.- Araua

Erabakia, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2021eko martxoaren 23koa, zeinaren bidez baliabide ekonomikoak esleitzen baitira, 2021eko ekitaldian, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko urriaren 22ko 164/2019 Dekretuaren IV. kapituluan aurreikusitako laguntzak finantzatzeko. (2070 Ebazpena, 2021/03/24koa - 70.EHAA, 2021eko apirilaren 12koa).

3.- Arauaren argitalpena, deialdia eta emakidaren ebazpena (Esteka EHAARA)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/04/1202070e.shtml>

4.- Dirulaguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak

Urriaren 22ko 164/2019 Dekretuaren IV. kapituluan, familia eta lana bateragarri egiteko politikaren esparruan, seme-alabak edo mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senideak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duten langileak ordezkatzeko kontrataziorako laguntzak arautzen dira:

- Diruz lagunduko da langabe gisa inskribatutako pertsonak kontratatzea, besteren konturako langileak edo kooperatiba-sozietateetako bazkide langileak edo lan-bazkideak ordezteko, baldin eta eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu badute.
- Era berean, diruz lagunduko da aurretik lanaldi partzialerako kontratatutako langile baten lanaldia luzatzea, eszedentzian edo lanaldi-murrizketan dagoen pertsona baten lanpostua betetzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren exekuzioa, baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Lortutako emaitzak

Diruz lagundutako kontratazioak: 852

Aurrekontuaren exekuzioa

Laguntza hauek finantzatzera 2021eko deialdian bideratutako baliabide ekonomikoak 2.200.000 €-koak dira.

2021ean exekutututako aurrekontua: 1.141.153,95 €.

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Familia eta lana bateragarri egiteko diruz lagundutako eskaera eta kontratu gutxiago egon diren arren (telelanaren gorakadaren ondorioz, ziurrenik), programaren erabilgarritasuna eta eragina ez da zalantzarria, pandemiaren aurreko ekitaldietan bezala normaltasun-egoeretan hasierako kreditua



handitu ere egin behar izan baitzen jasotako eskaerei erantzuteko. Kontratazio horiek bi eragin dituzte programa honen onuradun diren enpresetan: alde batetik, ordezkatutako langileen familia eta lana bateragarri egitea ahalbidetzen du, eta, bestetik, langile berriak kontratatzea eta enpresa onuradunetan sinergiak mantentzea.

6.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Kontratu-kopurua:	1.725	852



1.- Dirulaguntzen Programaren izenburua

Enplegu-zentro berezietan desgaitasuna duten pertsonen lanpostuak mantentzeko laguntzak

2.- Araua

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2021eko apirilaren 21ekoa, zeinaren bidez diru- esleitzen baitira 2021. urtean desgaitasuna duten pertsonen lanpostuak enplegu-zentro berezietan mantentzeko laguntzak finantzatzeko. Laguntza horiek urriaren 29ko 168/2019 Dekretuan daude aurreikusita (168/2019 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin lotutako programak eta zerbitzuak arautzen dituen). (2614 Ebazpena, 2021/04/22ko 90. EHAA, 2021eko maiatzaren 10koa).

3.- Arauaren argitalpena, deialdia eta emakidaren ebazpena (Esteka EHAARA)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/05/2102614e.shtml>

4.- Dirulaguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak

Desgaitasuna duten pertsonen laneratzea, integrazio pertsonala eta gizarteratzea sustatzea, eta desgaitasuna duten ahalik eta pertsona gehien lan-erregimen arruntean integratzeko tresna izatea. Halaber, desgaitasuna duten langileen baldintza fisiko, psikiko edo intelektualetara egokitutako lanpostuak eskaintzen dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren exekuzioa, baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Lortutako emaitzak

Kontratutako pertsona-kopurua (batez besteko plantilla urtean): 10.038

Zentro-kopurua: 78

Aurrekontuaren exekuzioa

Laguntza-programa hori finantzatzeko diru-baliabideak 55.100.000 eurokoak izan ziren eta horietatik exekutatu dira:

2021ean exekututako aurrekontua: : 55.099.617,13 €

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

2021ean zehar enplegu-zentro berezi berriak eskatzen eta kalifikatzen jarraitu dira, eta horrek lanpostu berriak sortzen ari da. Azken ekitaldietan, diruz lagundutako lanpostuen kopuruak gora egin duela egiaztatu da, nahiz eta pandemia izan. Gaur egun, batez beste, 10.038 pertsona daude desgaitasunen bat dutenak lanean eta artatuta, eta horrek eragin sozial handia du, batez ere desgaitasunen bat duten pertsonen familietan eta haien ongizatean, desgaitasunen bat duten pertsonen gizarteratze eta laneratzearen bidez.

6.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
- EAEn indarrean dagoen EZB kopurua:	75	78
- Desgaitasuna duen langile kopurua:	10.200	10.038



1.- Dirulaguntzen Programaren izenburua

Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzeko dirulaguntza, langabezia-prestazioa kobratzen dutenentzat

2.- Araua

Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2021eko martxoaren 23an, zeinaren bidez zenbait diru-baliabide esleitzen baitira Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren 1994ko apirilaren 13ko Aginduan ezarritako laguntzak 2021ean finantzatzeko. Agindu horren bidez, oinarri arautzaileak ezartzen dira langabezia-prestazioa ordaintzeko bakarreko modalitatean jasotzen dutenei Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzeko dirulaguntzak emateko, 1044/1985 Errege Dekretuaren 4.2. artikuluan ezarritakoari jarraikiz. (1918 Ebazpena, 2021/03/24koa - 66. EHA, 2021eko apirilaren 6koa).

3.- Arauaren argitalpena, deialdia eta emakidaren ebazpena (Esteka EHAra)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/03/2101918e.shtml>

4.- Dirulaguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntzaren xedea da lan elkartuko kooperatiba bateko edo lan-izaerako sozietate bateko langile bazkideek, merkataritza-izaerako entitateak eratzen eta abian jartzen dituzten pertsona langabeek eta beren konturako erregimenean lanean hasten direnek jarduera profesionalak egitea. Dirulaguntza jaso ahal izateko, ezinbestekoa da Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak ordaintzeko bakarreko modalitatean eman izana langabezia-prestazioa, prestazio horrek egun zuen zenbateko osoan.

Horretarako, diruz laguntzen dira goian adierazitako langileek Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kuotak, baldin eta jasotzeko zuten langabezia-prestazioaren kopuru osoa batera eskuratzeko eskubidea erabili baldin badute, beren jarduera profesionalaren hasieran laguntzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren exekuzioa, baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Lortutako emaitzak

Prestazioa ordaintzeko bakar gisa jasotzeagatik LANBIDEren aldetik 2021ean lehen kuotaren ordaintzea jaso dituzten pertsonak: 518.

Aurrekontuaren exekuzioa

Laguntza horiek finantzatzeko baliabide ekonomikoak 500.000 euro izan dira 2021ean. 2021ean exekutatuak aurrekontua: 161.516,73 €

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Enplegua sustatzeko neurri honen xedea da prestazioen onuradunek enplegu propioa lor dezaten sustatzea eta autoenplegua bultzatzea, langabeziaren aurkako babes-politika pasiboen ordez enplegu-



politika aktiboetara helduz. Krisien egoerak edo ondorioak dauden bitartean horrelako neurriak bultzatzen jarraitu behar da, langabeak lan-merkatuan sar daitezten errazteko, eta gaur egun, krisi sanitario eta sozioekonomiko baten ondorioak jasaten ari gara, eta horrek laneko eta ekonomiako ondorioak dakartza.

6.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Kooperatibetan edo lan-sozietateetan bazkide modura sartu den pertsona-kopurua:	500	250
Autonomo hasi direnak, hau da, norberaren kontura:	140	288



1.- Dirulaguntzen Programaren izenburua

Desgaitasuna duten pertsonen enplegua lan-merkatu arruntean sustatzeko laguntzak

2.- Araua

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2021eko martxoaren 23koa, zeinaren bidez baliabide ekonomikoak esleitzen baitira, 2021. urtean, desgaitasunak dituzten pertsonen enplegua lan-merkatu arruntean sustatzeko laguntzak finantzatzeko. Laguntza horiek Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasunen bat duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta enplegu-zentro berezien Euskal Erregistroa arautzeko urriaren 29ko 168/2019 Dekretuan aurreikusitakoak (1966 Ebazpena, 2021/03/24ko 67. EHA, 2021eko apirilaren 7koa).

3.- Arauaren argitalpena, deialdia eta emakidaren ebazpena (Esteka EHAAra)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/04/2101966e.shtml>

4.- Dirulaguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak

Hartutako neurrien helburua da desgaitasuna (sortzetikoa nahiz eratorria) duten pertsonen laneratzea bultzatzea, enpresa arrunteko lanpostuetan. Finean, dirulaguntza ematen zaie enpresei, desgaitasuna duten pertsonak kontrata ditzaten.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren exekuzioa, baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Lortutako emaitzak

Kontratutako pertsona-kopurua: 139

Aurrekontuaren exekuzioa

Laguntza horiek 2021ean finantzatzeko, 700.000 euro bideratu dira.

2021ean exekututako aurrekontua: 463.476,86 €.

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Desgaitasuna duten pertsonak lan-merkatu arruntean eta kontratu mugagabeen bidez laneratzen laguntzen du programa honek, eta baliagarritasun eta eragin sozial handiak ditu kolektibo horretako pertsonentzat, lan babestuaz bestelako lan-aukerak ematen dizkielako.

6.- Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
<i>Kontratu mugagabe kopurua enpresa arruntean:</i>	187	139



1.- Dirulaguntzen Programaren izenburua

Enplegua sustatzeko tokiko laguntzak

2.- Araua

Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2021eko ekainaren 15ko bilkuran hartutakoa, zeinaren bidez onartu baitzen enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2021eko laguntzen deialdia. (3732 Ebazpena, 2021/06/16koa - 128. EHAA, 2021eko ekainaren 30ekoa).

3.- Arauaren argitalpena, deialdia eta emakidaren ebazpena (Esteka EHAARA)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/06/2103732e.shtml>

4.- Dirulaguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdiaren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko toki-entitateei laguntzak ematea, enplegua sortzeko proiektuak abian jar ditzaten. Proiektu horiek eragina izan behar dute beren jardun-eremuko lurraldearen garapen sozioekonomikoan eta modernizazioan, eta modu orekatuan eskaini behar dituzten enplegu-aukerak Euskadiko eskualde guztietan; betiere, 2030 Euskal Enplegu Estrategiarekin bat etorrira eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa beteta.

Deialdi honen azken xedea da Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda dauden pertsonen enplegarritasuna hobetzea.

5.- Lortutako emaitzak, baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Lortutako emaitzak

Ekintzak aurkeztu dituen udal eta/edo mankomunitate kopurua: 52

Laneratutako pertsona-kopurua: 4.095 hasierako emandako kontratuak (programa bukatu gabe)

Aurrekontuaren exekuzioa

Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 32.000.000 eurokoak dira; horietatik, 17.600.000 euro 2021eko ordainketa-kredituari dagozkie, eta 14.400.000 euro, 2022ko konpromiso-kredituari.

2021ean exekutututako aurrekontua: 17.589.119,75 €

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Programa honek, Autonomia Erkidegoaren eta Toki Entitateen arteko Lankidetzaren Esparruaren baitan, aukera ematen die toki-entitateei beren enplegu-planak bideratzeko, Enplegu Legeak ez baitie eskumenik



ematen gai-alor horretan. Hortaz, deialdi honen bitartez, EAEk Enplegu Legearen 4. artikuluan xedatutakoa betetzen du, enplegu-politiken tokiko dimentsioari buruz.

Toki-eremua da egokiena ekoizpen-aukera berriak aurkitzeko; beraz, ezinbestekoa da enplegu-politiken diseinuan eta kudeaketa-ereduan toki-izaera hori kontuan hartzea, lurraldeko beharretara egokitu behar baitira. Izan ere, horrela sustatuko dira aukera horiek aprobetxatzen laguntzen duten jarduketak, eremu horretako enplegu-sorrerako eta enpresa-jarduerako ekimenak sustatuz eta laguntza emanez, enpleguaren oinarritzko arauan ezarrita dagoen bezala, urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegu Legearen testu bateginean.

6.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
- Ekintzak aurkeztu dituen udal eta/edo mankomunitate kopurua:	52	52
- Ekintza kopurua, tipologiaren arabera:		
-. Enpleguaren sustapena:	70	497
-. Kontratazioa sustatzeko laguntzak:	60	24
-. Bestelako ekintzak:	50	8
- Laneratutako pertsona-kopurua:	4.500	4.095



1.- Dirulaguntzen Programaren izenburua

Laneratzeko enpresei zuzendutako laguntzak

2.- Araua

Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2021eko maiatzaren 25eko bilkuran hartutakoa, zeinaren bidez onartu baitzen laneratzeko enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntzen deialdia. Laguntza horiek Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan araututa daude. (3328 Ebazpena, 2021/05/26koa - 113. EHAA, 2021eko ekainaren 10ekoa).

3.- Arauaren argitalpena, deialdia eta emakidaren ebazpena (Esteka EHAARA)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/06/2103328e.shtml>

4.- Dirulaguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak

Laneratzeko enpresak bitarteko bat dira, hau da, Eusko Jaurlaritzak, horien bidez, politika publikoak aplikatzen ditu gizarte-bazterketaren aurka borrokatzeko, bai eta behar gehien duten kolektiboei eta bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen lan-merkatu arruntan laneratzen laguntzeko ere, akonpainamenduaren bidezko laneratze- eta gizarteratze-prozesuen bitartez.

Laneratzeko enpresak sortzeko laguntzak ematen zaizkie enpresa horien sustatzaileei. Merkatu-azterlanak egiteko laguntzak dira, enpresa horiek sortzea bideragarria den ala ez jakiteko.

Laneratzeko enpresen iraunkortasunerako laguntzak honako hauek dira:

- Aktibo finkoetan egindako inbertsioak
- Gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuan dauden pertsonentzako lanpostuak sortzea eta mantentzea
- Produzioan laguntzeko teknikarientzako lanpostuak sortzea eta mantentzea
- Laneratzeko bidean laguntzeko teknikarientzako lanpostuak sortzea eta mantentzea
- Merkatu-azterlanak egiteko laguntza teknikoa
- Prestakuntza

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren exekuzioa, baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Lortutako emaitzak

Indarrean diren laneratzeko enpresak: 43

Betetako laneratze-postuen kopurua: 696 laneratze-postu

Laneratzen laguntzeko zenbat teknikarik jaso duten dirulaguntza: 166



Aurrekontuaren exekuzioa

Deialdi honen xede diren laguntzak finantzatzeko diru-baliabideak 12.937.855,74 eurokoak dira; horietatik, 2.170.000 euro 2021eko ordainketa-kredituari dagozkio, 4.055.632,03 euro 2022ko konpromiso-kredituari, 4.055.632,03 euro 2023ko konpromiso-kredituari eta 2.656.591,68 euro 2024ko konpromiso-kredituari. 2021/2022/2023/2024-etan exekutaturako aurrekontua:: 12.531.585,24 €

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Programa honek onura publikoko eta interes sozialeko helburua du, baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak laneratzearen eta gizarteratzearen bultzatzeko delako, horiek baitira ahulenak bizi dugun krisi sanitario eta ekonomikoaren aurrean.

6.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
• Indarrean den laneratzeko enpresa-kopurua: :	43	43
• Baztertuak izateko arriskuan egonik laneratzeko enpresetan kontratatu diren pertsonak, Lanbideren laguntzarekin:	640	696
• Laneratzeko enpresetan kontratatu beharreko teknikari laguntzaileak, Lanbideren laguntzarekin:	140	166



1.- Dirulaguntzen Programaren izenburua

Laguntzak SINTEL enpresako langileei

2.- Araua

Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak hartutako Erabakia, zeinaren bidez diru-baliabideak esleitzen baitira 2021ean 2001eko martxoaren 8ko 76/2000 eta 2001eko uztailaren 31ko 25/2001 enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean dauden langileentzako laguntza bereziak finantzatzeko, betiere laguntza horiek emateko prozedurari jarraituz, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko apirilaren 18ko Aginduan xedatutakoarekin bat (1917 Ebazpena, 2021/03/24koa - 66. EHAA, 2021eko apirilaren 6koa).

3.- Arauaren argitalpena, deialdia eta emakidaren ebazpena (Esteka EHAARA)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/04/2101917e.shtml>

4.- Dirulaguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak

Sintel enpresaren enplegu-erregulazioko espedienteetan sartu ziren langileak berriro laneratzen laguntzea, eta langile horiei laguntza bereziak eskaintzea. Laguntzak hilero ordaintzen dira, eta langile-ohiek Gizarte Segurantzarekin izenpetu zuten hitzarmen bereziaren kostua ordaintzeko zenbateko gehigarriak izan daitezke.

Erretiroa hartzeko adina bete arte luza daitezke laguntza hauek.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren exekuzioa, baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Lortutako emaitzak

Langile onuradunen kopurua: 2

Aurrekontuaren exekuzioa

Zenbatekoa 242.440 eurokoa da guztira; horietatik 28.800 euro 2021eko ordainketa-kredituari dagozkio, eta gainerakoa hurrengo ekitaldietako konpromiso-kredituari, 2022etik 2033era bitartean.

2021ean exekutaturako aurrekontua: 16.759,99 €

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Lan-merkatuan gaur egun dauden inguruabarrak kontuan hartuta, laguntza hori eskatzeko eskubidea duten pertsonak egoera horretan egoteko aukera (oraindik beste hamar bat pertsona egongo lirateke eskubide horrekin) jasaten ari garen krisi-egoeren aurreko garaietan baino handiagoa da, eta, beraz, aurrekontu-aurreikuspenak ez dira handitzen, baina mantendu egiten dira, programa honetan beste pertsona batzuk sar daitezkeela iritzita, eta urtean gutxienez 4 gehiago zenbatetsi dira.

6.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
- Langile onuradunen kopurua:	4	2
- Langile onuradun berrien kopurua	4	2



1.- Dirulaguntzen Programaren izenburua

Enplegu-zentro berezietako lanbide-jarduerari laguntzeko unitateak finantzatzeko laguntzak

2.- Araua

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2021eko martxoaren 23ko batzarrean hartutako Erabakia, zeinaren bidez onartu baitzen 2021eko laguntzen deialdia, Euskal Autonomia Erkidegoko Enplegu-zentro berezietako lanbide jarduerari laguntzeko unitateak finantzatzeko. Laguntza horiek urriaren 29ko 168/2019 Dekretuan daude aurreikusita (2069 Ebazpena 2021/03/24koa - 70.EHAA 2021eko apirilaren 12koa).

3.- Arauaren argitalpena, deialdia eta emakidaren ebazpena (Esteka EHAARA)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/04/2102069e.shtml>

4.- Dirulaguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntza ematea enplegu-zentro berezietan lanbide-jardueran laguntzeko unitateetako langileak kontratatzeko: profesional askok osatutako lantaldeak dira laguntzeko unitateak, eta beren egitekoa da enplegu-zentro berezietan laguntza ematea, desgaitasuna duten pertsonen eta lanpostu bat eskuratzeko prozesuan oztopo eta eragozpen handiak dituzten pertsonen laneratzeko zailtasunak gainditzeko, baita lanpostu horietan mantentzeko ere. Desgaitasuna duten pertsonak gizartean integrazio osoa izango dutela bermatzen dute enplegu-zentro berezietako egokitze pertsonal eta sozialeko zerbitzuek.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren exekuzioa, baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Lortutako emaitzak

Laguntzeko unitate-kopurua: 38

Desgaitasuna duen erabiltzaile-kopurua: 4.777

Aurrekontuaren exekuzioa

Deialdi honetako laguntzak 2021ean finantzatzeko, 5.000.000 euro bideratu dira.

2021ean exekutututako aurrekontua: 5.000.000 euro (Hainbanaketa egin behar izan da, emateko zenbatekoak kreditu erabilgarria gainditzeagatik.)

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Laguntzeko unitateen programak zuzenean bermatzen du enplegu-zentro berezietako teknikarien enplegua mantenduko dela. Desgaitasuna eta laneratzeko zailtasun handiak dituzten pertsonen lanpostuak eskuratzeko eta lanpostu horietan mantentzeko behar duten laguntza eta akonpainamendua emateko prozesuez arduratzen dira zentro horiek. Haien laguntzarik gabe, ezingo litzateke bermatu kolektibo horren laneratzea (eta gizarteratzea).

6.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
- Diruz lagundutako lanbide-jarduerari laguntzeko unitate-kopurua:	36	38
-Desgaitasun larria izanik laguntzeko unitateak erabiltzen dituen langile-kopurua:	4.573	4.777



1.- Dirulaguntzen Programaren izenburua

Lehen Aukera Programa

2.- Araua

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2021eko apirilaren 21eko bilkuran hartutakoa, zeinaren bidez 2021. urterako laguntzen deialdia onartzen baita gazte langabeak EAEko enpresetan kontratatzeko. Lehen Aukera programa. (2615 Ebazpena, 2021/04/22koa - 90. EHAA, 2021eko maiatzaren 10ekoa).

3.- Arauaren argitalpena, deialdia eta emakidaren ebazpena (Esteka EHAARA)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/05/2102615e.shtml>

4.- Dirulaguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen xedea da beren tituluarekin lotutako lanetan esperientzia gutxi edo batere esperientziarik ez duten gazte langabeak (16 eta 30 urte bitartekoak) kontratatzea, praktikaldia egiteko edo kontratu mugagabearekin. Kontratuak EAEko enpresek egingo dituzte, lanbide-esperientziaren bidez gazte horien enplegarritasuna hobetzeko neurri gisa, eta haien laneratzea egonkortzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren exekuzioa, baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Lortutako emaitzak

Lehen lana eskuratu duen pertsona-kopurua: 525 (kreditua agortu arte)

Aurrekontuaren exekuzioa

1.- Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 4.000.000 eurokoak; horietatik, 2.153.846 euro Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurrekontuko 2021eko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 1.846.154 euro, 2022ko konpromiso-kredituari.

2.- Deialdi hau finantzatzeko bideratutako baliabide ekonomikoak honela banatuko dira:

- a) 3.846.154 euro lan-kontratu mugagabeak eta praktikaldiko kontratuak finantzatzeko. Aurrekontu horretatik 2.000.000 euro 2021eko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 1.846.154 euro, 2022ko konpromiso-kredituari.
- b) 153.846 euro 12. artikuluan ezarritako entitate laguntzaileek lan-eskaintzak jaso, erregistratu eta kudeatzeko, bai eta trantsizio-prozesuaren kudeaketa eta jarraipena egiteko ere, 2021eko konpromiso-kredituaren kontura.

2021ean exekutututako aurrekontua:

- a) 1.984.120,32 € (52% emandako zenbatekotik) eta



b) 67.760 € (100% emandako zenbatekotik)

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Programa honen helburua da gazteen kolektiboaren langabezia murriztea, 2008az geroztik bizi ari garen krisi ezberdinen kateatzearen eraginen ondorioz gehien eragiten dien biztanle-taldea den aldetik. Hain zuzen ere, gazteen langabezia murriztea da gure gizartearen erronka nagusietako bat, eta erronka horri aurre egin behar diote bai erakunde publikoek bai enpresa pribatuek. Arazo honen konponbidean arrakasta lortuko da, hein handi batean, parte hartzen duten antolakunde eta sektore guztien laguntzari zein koordinazioari esker, baita ekimen pribatuak egokiak diren neurriak diseinatzean, hartzean eta martxan jartzean duen partaidetzari esker ere.

Baina esperentziarik eza da, egungo egoera sozioekonomikoa alde batera utzita, gazteek lan-merkatuan sartzea gehien zailtzen duen arrazoia. Hori dela eta, deialdi honen xedea da erraztasunak ematea, ikasketak amaitu berri dituzten gazteei lan-munduan sartzeko lehen aukera emateko, hezkuntza-bizitzatik bizitza profesionalera errazago igaro daitezen. Horretarako, esperientzia biziko dute lanpostuan, eta, horrenbestez, lana aurkitzeko edo mantentzeko aukerak hobetuko dira.

6.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
- Gazteei egin beharreko praktikaldiko kontratu-kopurua:	560	525
- Gazteei egin beharreko kontratu mugagabeen kopurua:	60	132
- Parte hartu duen enpresa-kopurua:	450	337



1.- Dirulaguntzen Programaren izenburua

Tokiko entitateek gazteak kontratatzea, 2014-2020 eperako Gazte Enpleguaren Programa Operatiboaren esparruan

2.- Araua

Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2021eko ekainaren 15eko bilkuran hartutakoa, zeinaren bidez onartu baitzen 2021eko ekitaldiko laguntzen deialdia, toki-entitateek gazteak kontrata ditzaten 2014-2020 eperako Gazte Enplegurako Programa Operatiboaren esparruan. (3697 Ebazpena, 2021/06/16koa - 127. EHA, 2021eko ekainaren 29koa).

3.- Arauaren argitalpena, deialdia eta emakidaren ebazpena (Esteka EHAra)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/06/2103697e.shtml>

4.- Dirulaguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen xedea da gazte langabeak (16 eta 30 urte bitartekoak) kontratatzea beren titulazioarekin lotutako lanpostuetarako, beren tituluarekin lotutako lanetan esperientzia txikia edo batere esperientziarik ez duten heinean eta bai Lanbiden bai Gazte Bermerako Sistemari izena emanda dauden heinean. Kontratuak toki-entitateek egingo dituzte, esperientzia profesionalaren bidez gazte horien enplegarritasuna hobetzeko, eta, hartara, haien laneratzea egonkortzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren exekuzioa, baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Lortutako emaitzak

- Eskaera-kopurua: 40
- Kontratu-kopurua: 250 emandakoak

Aurrekontuaren exekuzioa

Deialdi honetako laguntzak finantzatzeko, 6.500.000 euro bideratu dira, 2021eko ordainketa-kredituaren kontura.

2021ean exekutaturako aurrekontua: 4.983.280,00 €

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Programa honen helburua da gazteen kolektiboaren langabezia murriztea, 2008az geroztik bizi ari garen krisi ezberdinen kateatzearen eraginaren ondorioz gehien eragiten dien biztanle-taldea den aldetik. Hain zuzen ere, gazteen langabezia murriztea da gure gizartearen erronka nagusietako bat, eta erronka horri aurre egin behar diote bai erakunde publikoek bai enpresa pribatuek. Arazo honen konponbidean arrakasta lortuko da, hein handi batean, parte hartzen duten antolakunde eta sektore guztien laguntzari



zein koordinazioari esker, baita ekimen pribatuak egokiak diren neurriak diseinatzean, hartzean eta martxan jartzean duen partaidetzari esker ere.

Baina esperientziarik eza da, egungo egoera sozioekonomikoa alde batera utzita, gazteek lan-merkatuan sartzeari gehien zailtzen duen arazoia. Hori dela eta, deialdi honen xedea da erraztasunak ematea, ikasketak amaitu berri dituzten gazteei lan-munduan sartzeko lehen aukera emateko, hezkuntza-bizitzatik bizitza profesionalera errazago igaro daitezzen. Horretarako, esperientzia biziko dute lanpostuan, eta, horrenbestez, lana aurkitzeko edo mantentzeko aukerak hobetuko dira.

6.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
- Gazteei egin beharreko kontratu-kopurua:	400	250
- Parte hartu duen toki-entitateen kopurua:	52	40



1.- Diru-laguntza Programaren titulua

Proiektu bereziak (Gizarteratzea + Formakuntza)

2.- Arau erregulatzailea

EBAZPENA, 2021eko apirilaren 22koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, laneratzeko proiektu bereziak garatzeko laguntzen deialdia argitaratzen duena, 2021ean lana lortzeko edo enplegua mantentzeko zailtasunak dituzten langile landunentzat eta langabeentzat.

3.- Emateko arau arautzailea, deialdia eta ebazpena argitaratzea (hiperesteka, EHAA)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/05/2102797a.pdf>

4.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Langabeak gizarteratzeko, laneratzeko eta landunentzako enplegarritasuna hobetzeko jarduera integralak, beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin lankidetzan.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-betearazpena eta erabilgarritasuna eta gizarte-eragina

Lortutako emaitzak

Prestakuntza-ekintzak: 76 proiektu, 1.146 pertsonari prestakuntza emateko, eta 384 prestakuntza-ekintza emateko.

Prestatutako pertsonen kopurua: 1.146 pertsona

Aurrekontuaren betearazpen

Gauzatutako aurrekontua: 4.739.178,48 €

Erabilgarritasuna eta Gizarte-eragina:

Deialdi honen babesean diruz lagundutako jardueren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko laneratzeko edo gizarteratzeko zailtasun handienak dituzten langabeek eta landunek prestakuntza egokia eta lan-merkatuan sartzea bermatuko duten lan-aktibazioko ekintzak izatea ahalbidetzen da. Nabarmendu behar da diru-laguntzen lerro hau enplegurako programa integrala dela, eta udalak eta toki-erakundeak inplikatzeko du helburu, bai eta beste erakunde batzuk ere, proiektuari gutxienez aurrekontu %10eko ekarpena eginez, ahaleginak koordinatzeko eta helburuak lortzen direla ziurtatzeko.

Proiektu bereziak prestakuntza-ekintzak, prestakuntza-jarduerak, enplegua edo horietan parte hartzen duten pertsonen enplegarritasuna nabarmen hobetzen duen beste edozein neurri konbinatzen dituzte.

Proiektu berezien ekintzak laneratzeko edo enpleguari eusteko zailtasunak dituzten kolektiboek zuzenduta daude.



6.- Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Gutxienez 1. Edo 2 mailako kualifikazioari buruzko titulazioa lortzearekin prestakuntza-ibilbideak amaitzen dituzten pertsonak	50%	(*)
Aurrez jaso duten prestakuntzarekin lotutako jarduera-sektorea duten enpresetan kontratatutako pertsonak	30%	(*)

(*) Proiektua gauzatzen ari da, eta beraz ezin da behin-betiko daturik eman.



1.- Diru-laguntza Programaren titulua

Lehentasunez langabeei zuzendutako prestakuntza-ekintzak (82/2016 Dekretu, Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duena)

2.- Arau erregulatuak

EBAZPENA, 2020ko ekainaren 24koa, Lanbide-Euskal Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, langile langabeentzako 2020-2022 prestakuntza-eskaintza finantzatzeko diru-laguntzen deialdia argitaratzeko dena, Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren esparruan (2020ko ekainaren 30eko EHAA).

Hutsen zuzenketak, 2020ko uztailaren 17ko, 2020ko uztailaren 29ko eta 2020ko urriaren 30eko EHAAn argitaratuak.

3.- Emateko arau arautzailea, deialdia eta ebazpena argitaratzea (hiperesteka, EHAA)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2020/06/2002555a.pdf>

4.- Diru-laguntza Programaren deskribapen laburra eta helburuak

Enplegurako Lanbide Heziketa da enplegu-zerbitzu publikoek beren zerbitzu-zorroan langileei eskaintzen dieten tresna nagusietako bat, eta modu erabakigarrian laguntzen die lan-merkatuan sartzen edo enplegarritasuna hobetzen. Prestakuntza-ekintza horien bidez, ikasleek beren gaitasun profesionalak eta pertsonalak eskuratzea, hobetzea edo eguneratzea lortzen dute, eta lanpostuan esperientzia bat lortzen dute, lanekoa ez den praktika bat eginez, hala badagokio. Praktika horrek enpresan jasota uzten du pertsona horrek prestakuntza jaso duen lanbide-profiletan lan egiteko aukerak dituela.

Testuinguru horretan, akordio honetan finantzatutako prestakuntza-ekintzen bidez, aukera ematen da Euskal Autonomia Erkidegoko langabeek, lehentasunez, prestakuntza-eskaintza zabala izan dezaten, enplegarritasuna hobetzen modu eraginkorrean laguntzeko.

2020an argitaratutako deialdia urte anitzekoa da 2020, 2021 eta 2022rako.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-betearazpena eta erabilgarritasuna eta gizarte-eragina

Lortutako emaitzak

2021ean 1.328 prestakuntza-ekintza amaitu dira, 19.952 parte-hartzaileekin.

Aurrekontua gauzatzea

2021ean programa honetako prestakuntza-ekintzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 39.785.875,33 € dira.


Erabilgarritasuna eta Gizarte-eragina:

Lehentasunez langabeei zuzendutako enplegurako lanbide-heziketak euskal lan-merkatuak eskatutako lan-okupazioetan laguntzen die lanik ez duten pertsoneri, 1., 2. Eta 3. Mailetako profesionaltasun-ziurtagiriak eta espezializazioko prestakuntza-espezialitateak emanez. Era berean, deialdi honen prestakuntza-programazioan arreta berezia jartzen da gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasunak dituzten pertsoneri prestakuntza ematean, bai eta profesionaltasun-ziurtagiri bat egin eta gainditu ahal izateko funtsezko gaitasunetan beharrezko prestakuntza ematean ere. Era berean, zeharkako gaitasunei buruzko prestakuntza-eskaintza zabala dago.

6.- Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Formakuntza-ekintzak:		
• Gaitasun giltzarrietan eta zeharkakoetan prestakuntza jaso duten pertsonen kopurua	2.600	3.919
• Profesionaltasun-ziurtagirian prestakuntza jaso duten pertsonen kopurua	14.000	11.048
• Prestakuntza ez-egiaztagarrian prestakuntza jaso duten pertsonen kopurua	4.500	4.985



1.- Diru-laguntza Programaren titulua

HEZIBI programa – Formakuntza eta txandakako lana gazteentzat

2.- Arau erregulatzaileria

EBAZPENA, 2021eko apirilaren 22koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakia argitaratzen duena. Erabaki horren bidez, Hezi gazteen prestakuntza arautzen duten oinarriak ezartzen dituen 2012ko urriaren 3ko Aginduan aurreikusitako laguntzak 2021eko ekitaldian finantzatzeko baliabide ekonomikoak esleitzen dira.

3.- Emateko arau arautzailea, deialdia eta ebazpena argitaratzea (hiperesteka, EHAA)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/05/2102797a.pdf>

4.- Diru-laguntza Programaren deskribapen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen artean enpleguarekin txandakatzen den prestakuntza sustatzeko diru-laguntza, hau da, prestakuntza duala, Lhko zikloetako ikasleekin eta profesionaltasun-ziurtagiria egiten duten langabeekin prestakuntza eta ikaskuntza-kontratu bat formalizatuz.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-betearazpena eta erabilgarritasuna eta gizarte-eragina

Lortutako emaitzak

Prestakuntza dualean kontratatutako 693 pertsonak jaso dute Hezibi diru-laguntza 2021ean.

Aurrekontu gauzatzea

2021eko aurrekontu gauzatua: 872.595,86 €

Erabilgarritasuna eta Gizarte-eragina:

Formakuntza dualak zuzeneko eragina du LHko titulu bat edo profesionaltasun-ziurtagiri bat ikasten ari diren gazteen enplegarritasunean; izan ere, prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratu baten bidez kontratatzen dira, eta horrek abantaila guztiak dakarzkie bai enpresari bai langileei.

6.- Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Formakuntzan kontratatutako pertsona kopurua	1.000	693



1.- Diru-laguntza Programaren titulua

Lehentasunez Euskal Autonomia Erkidegoko langile landunei zuzendutako enplegurako prestakuntza finantzatzeko diru-laguntzen deialdia

2.- Arau erregulatzaileria

EBAZPENA, 2020ko ekainaren 24koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, lehentasunez Euskal Autonomia Erkidegoko langile landunei zuzendutako 2020-2022 prestakuntza-eskaintza finantzatzeko diru-laguntzen deialdia argitaratzen duena.

3.- Emateko arau arautzailea, deialdia eta ebazpena argitaratzea (hiperesteka, EHAA)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2020/06/2002555a.pdf>

4.- Diru-laguntza Programaren deskribapen laburra eta helburuak

Enplegurako lanbide-heziketaren azpisistemako prestakuntza-ekimena. Ekimen horren helburua da lanean ari diren langileei lehentasunez eskaintzea gaitasunak eta kualifikazioak hobetzera eta langileak indibidualki birkualifikatzera bideratutako prestakuntza-ekintzak. Lanean ari diren langileekin batera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaileria gisa izena emanda dauden eta langabezia dauden langileek ere parte hartu ahal izango dute, gehienez ere % 30 dagokion plan osoan eta plan horren barruan prestakuntza hasten duten pertsona guztiei dagokienez. Ekimen horrek biztanleria aktiboaren enplegarritasuna eta bizitza osoko prestakuntza hobetzen laguntzen du, eta, aldi berean, enpresen produktibitatea eta lehiakortasuna hobetzen laguntzen du.

2020an argitaratutako deialdia urte anitzekoa da 2020,2021 eta 2022rako.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-betearazpena eta erabilgarritasuna eta gizarte-eragina

Lortutako emaitzak

Prestatutako pertsonen kopurua: 50.114

Aurrekontua gauzatzea

2021eko aurrekontu gauzatua: 18.784.367,22 €

Erabilgarritasuna eta Gizarte-eragina:

Lehentasunez landunei zuzendutako prestakuntzako eskaintza da langileen prestakuntzan eragin handiena duen lanbide-heziketako sistemaren ekimenetako bat, eta langabeei ere eragiten die, bertan parte hartzea ahalbidetzen baitu. Prestakuntzak pertsonen gaitasunak hobetzen laguntzen du, bai kualifikaziokoak bai zeharkakoak, eta profesionaltasun-ziurtagiri bat lortzeko prestakuntza egiaztagarria ere azpimarratzen du. Eragin soziala garrantzitsua da; izan ere, langileen eta langabeen prestakuntza-

itxaropenak estaltzen ditu, eta lanpostuaren garapenean behar diren lanbide-gaitasunak hobetzea lortzen du.

6.- Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Prestatutako pertsonen kopurua	31.000	50.114



1.- Diru-laguntza Programaren titulua

Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek garatzen dituzten prestakuntza-ekintza estrategikoak egiteko diru-laguntzen deialdia

2.- Arau erregulatzaileria

EBAZPENA, 2021eko uztailaren 14koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek garatzen dituzten prestakuntza-ekintza estrategikoak egiteko diru-laguntzen 2021eko ekitaldiko deialdia argitaratzen duena.

3.- Emateko arau arautzailea, deialdia eta ebazpena argitaratzea (hiperesteka, EHAA)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/07/2104223a.pdf>

4.- Diru-laguntza Programaren deskribapen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek langileen gaitasunak eta kualifikazioak hobetzeko programaturako prestakuntza-ekintzak (prestakuntza-ekintza estrategikoak) garatzeko diru-laguntzak.

Ekintza estrategikoak dira enpresaren proiektuarekin zuzenean lotuta daudenak eta beharren diagnostikoan edo antzeko dokumentu batean oinarrituta egon daitezkeenak, aurkeztutako ekintzen eta xede dituzten langileen lehentasuna adierazten dutenak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-betearazpena eta erabilgarritasuna eta gizarte-eragina

Lortutako emaitzak

11.376 pertsona prestatu dira. 121 enpresa parte-hartzaile.

Aurrekontua gauzatzea

2021eko aurrekontu gauzatua: 3.571.076,22 €.

Erabilgarria eta Gizarte-eragina:

Enpresentzako ekintza estrategikoek diru-laguntzak eskatzen dituzten enpresetan lan egiten duten pertsonen prestakuntzan eragitea lortzen dute; beraz, ematen den prestakuntzak enpresak identifikatutako prestakuntza-helburuak lortu nahi ditu. Langileak prestakuntza bat jasotzen du, bere lana hobeto garatzeko eta enpresak egineratze-prozesuan eta produkzio-bilakaeran izan behar dituen aldaketa teknologikoetara eta prozesu-aldaketetara egokitzeko.

6.- Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Prestakuntza jaso duten pertsonen kopurua	12.000	11.376
Parte hartu duten enpresen kopurua	200	121



1.- Diru-laguntza Programaren titulua

Kontratazeko konpromisoa duen prestakuntza

2.- Arau erregulatuak

EBAZPENA, 2021eko apirilaren 22koa, Lanbide-Euskal Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Euskal Autonomia Erkidegoko langile langabeei zuzendutako kontratazio-konpromisoa duten prestakuntza-ekintzak egiteko diru-laguntzen 2021erako deialdia, euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren esparruan.

3.- Emateko arau arautzailea, deialdia eta ebazpena argitaratzea (hiperesteka, EHAA)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/05/2102919a.pdf>

4.- Diru-laguntza Programaren deskribapen laburra eta helburuak

Kontratazio-konpromisoa duten prestakuntza-ekintzak, prestakuntza-ekintza amaitzen duten pertsonen %50entzat gutxienez, enpresen konpromisoak biltzen dituzten enpresek edo prestakuntza-erakundeek garatzekoak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-betearazpena eta erabilgarritasuna eta gizarte-eragina

Lortutako emaitzak

2021eko kontratazio-konpromisoa duten ekintzetan 473 pertsonak parte hartu dute, 236 kontratazeko konpromisoarekin.

Aurrekontua gauzatzea

2021eko aurrekontu gauzatua: 1.559.187,75 €

Erabilgarritasuna eta Gizarte-eragina:

Kontratazeko konpromisoa duen lanbide-heziketako programaren helburua gure erkidegoan instalatutako edo ezarri berri diren enpresek sortutako lanpostu berrietara egokitutako prestakuntza espezializatua eskaintzea da, kontuan hartuta prestakuntza-ekintzen helburu nagusia langabetuak laneratzea edo birlaneratzea dela produkzio-sistemak eskatzen dituen enpleguetan.

6.- Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Prestakuntza jaso duten pertsonen kopurua	900	473
Hitzartutako kontratuen kopurua	450	236



1.- Diru-laguntza Programaren titulua

Kualifikazio txikiko gazteentzako prestakuntza

2.- Arau erregulatzailea

EBAZPENA, 2021eko ekainaren 16koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Euskal Autonomia Erkidegoan kualifikazio baxua duten gazte langabeen aktibazio soziolaboralerako prestakuntza-ekintzak egiteko 2021-2023 aldirako diru-laguntzen deialdia argitaratzen duena.

3.- Emateko arau arautzailea, deialdia eta ebazpena argitaratzea (hiperesteka, EHAA)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/06/2103698a.pdf>

4.- Diru-laguntza Programaren deskribapen laburra eta helburuak

Deialdi honen xedea da 2021-2023 aldirako laguntzak arautzea, prestakuntza-ibilbideak sortzeko prestakuntza-proiektuak finantzatzeko oinarriko konpetentzietan, konpetentzia sozio pertsonaletan eta oinarriko mailako konpetentzia tekniko profesionaletan, prestakuntzaren hartzaileen garapen pertsonala eta gizarteratze sozioprofesionala bultzatzeko, bai eta 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak eskuratzeko ere.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-betearazpena eta erabilgarritasuna eta gizarte-eragina

Lortutako emaitzak

13 proiektu onartu dira 195 gazte prestatzeko.

Aurrekontua gauzatzea

2021eko aurrekontu gauzatua: 1.996.130,61 €

Erabilgarritasuna eta Gizarte-eragina:

Programa honen bidez, eskola uzten duten eta, adinagatik, hasierako lanbide-heziketara berriz lotu ezin diren gazteek behar duten arretarik gabeko premia asetzen da, bai eta gaztelania ikasi behar duten, trebetasun sozial eta kulturalak dituzten eta gure ingurunean laneratzea eta gizarteratzea eskain diezaieketen lanbideetan profesionalki trebatu behar duten gazte etorkinek ere.

6.- Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Prestatutako pertsonen kopurua:	195	195



1.- Diru-laguntza Programaren titulua

Emakume langabeen prestakuntza eta kontratazioa maskulinizatutako lanbideetan

2.- Arau erregulatzaileria

EBAZPENA, 2021eko maiatzaren 26koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita emakume langabeak lan maskulinizatuetan prestatzeko eta kontratatzeko proiektuetarako diru-laguntzen deialdia, Euskal autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide sustapena arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren esparruan.

3.- Emateko arau arautzailea, deialdia eta ebazpena argitaratzea (hiperesteka, EHAA)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/06/2103379a.pdf>

4.- Diru-laguntza Programaren deskribapen laburra eta helburuak

Emakumeak lan maskulinizatuenetan sar daitezen sustatzeko programa, prestakuntza espezializatuaren bidez eta enpresa kontratatzaileei diru-laguntza handia emanez. Helburuak asmo handikoak dira, parte-hartzaileen %70ek prestakuntza-ibilbidea amaitzea lortu nahi baitute, eta amaitzen duten emakumeen %70 kontratatzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-betearazpena eta erabilgarritasuna eta gizarte-eragina

Lortutako emaitzak

4 proiektuk 47 emakume prestatzeko abian jartzea lortu dute.

Aurrekontua gauzatzea

2021eko aurrekontu gauzatua: 103.582,02 €

Erabilgarritasuna eta Gizarte-eragina:

Programa honek emakumeek lan eremu eta okupazio guztietan parte hartzeko beharra azpimarratzen du, emakumeei soilik zuzendutako prestakuntza-jardueren bidez, tradizioz ohiko moduan bete ez dituzten lanbideak garatzea ahalbidetuko dieten lanbide-gaitasunak lortzeko.

6.- Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Prestatutako pertsonen kopurua:	265	47
Hitzartutako kontratuen kopurua	141	32



1.- Diru-laguntza Programaren titulua

Enplegu-nitxo berriak

2.- Arau erregulatzaileria

EBAZPENA, 2021eko uztailaren 14koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita 2021erako diru-laguntzen deialdia, enplegurako lanbide-heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren esparruan lehentasunez langabeei zuzendutako enplegu-nitxo berrien esparruan lanbide-gaitasunen prestakuntza-ekintzak egiteko.

3.- Emateko arau arautzailea, deialdia eta ebazpena argitaratzea (hiperesteka, EHAA)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/07/2104222a.pdf>

4.- Diru-laguntza Programaren deskribapen laburra eta helburuak

Gaitasun digitalak eskuratzea eta hobetzea bideratutako prestakuntza-ekintzak, pertsonen zaintzaren trantsizio energetiko-ekologikoaren eta ekonomia sortzailearen esparrukoak, batez ere langabeei zuzenduak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-betearazpena eta erabilgarritasuna eta gizarte-eragina

Lortutako emaitzak

461 prestakuntza-ekintza onartu dira 6.854 pertsona prestatzeko.

Aurrekontua gauzatzea

2021eko aurrekontu gauzatua: 4.475.290,39 €

Erabilgarritasuna eta Gizarte-eragina:

Programa honek azpimarratzen du beharrezkoa dela langileak egungo trantsizio digitalean, ingurumenekoan eta demografikoan eskatzen diren profil eta gaitasun profesional berrietara egokitzea.

6.- Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Prestatutako pertsonen kopurua:	4.720	6.854
Hitzartutako kontratuen kopurua	910	--



1.- Dirulaguntzen Programaren izenburua

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria

2.- Araua

- 18/2008 LEGEA, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa
- 147/2010 DEKRETUA, maiatzaren 25ekoa, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa.
- 2/2010 DEKRETUA, urtarrilaren 12koa, Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriari buruzkoa.
- 2001eko otsailaren 14ko AGINDUA, Oinarrizko Errentaren titularrak eta Gizarte-larrialdietarako Laguntzen onuradunak lanean hasteko pizgarriak ezartzen dituen.
- 4/2011 LEGEA, azaroaren 24koa, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legea aldatzen duena.

3.- Arauaren argitalpena, deialdia eta emakidaren ebazpena (Esteka EHAARA)

- 18/2008 LEGEA, abenduaren 23koa:
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2008/12/0807235a.pdf>
- 147/2010 ERREGE-DEKRETUA, maiatzaren 25ekoa:
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2010/06/1003020a.pdf>
- 2/2010 ERREGE-DEKRETUA, urtarrilaren 12koa:
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2010/01/1000216a.pdf>
- AGINDUA, 2001eko otsailaren 14koa:
<http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2001/02/0100962a.pdf>
- 4/2011 LEGEA, azaroaren 24koa:
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2011/12/1105924a.pdf>

4.- Dirulaguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta izeneko prestazio ekonomikoa aldizkakoa eta eskubide subjektibokoa da, bizikidetzaren unitate batean oinarrizko premiei lotutako gastuei zein gizarteratzeko edo laneratzeko prozesu baten ondorio diren gastuei aurre egiteko diru-sarrera nahikorik ez daukatenei zuzendua.

Etxebizitzarako Prestazio Osagarriari aldizkako prestazio ekonomikoa da, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE) osagarria. Etxebizitzaren edo ohiko bizilekuaren alokairu-gastuak ordaintzea du xede, modalitatea edozein dela ere: errentamendua, azpierrementamendua, baterako errentamendua, ostatatzea eta logelaren alokairua.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren exekuzioa, baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Lortutako emaitzak

Espedienteen/DSBEren titularren batezbestekoa: 53.695

Espedienteen/EGPOren titularren batezbestekoa: 25.402

Onuradunen batezbestekoa: 96.048

Aurrekontuaren exekuzioa

DBE eta EGPOra bideratutako kreditua 2021ean: 459.500.000,00 €

2021ean exekutaturako aurrekontua: 439.205.542 €

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina:

Euskal gizarteko kolektiborik kalteberenak babesteko programa da, eta bere helburua lortu du, 53.600 pertsona baino gehiago babestu baititu 2021ean.

6.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

AdierazleaAurreikuspenaEmaitza

Ez dagokio, ez baita dirulaguntza



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

COVID-19aren ondoriozko aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen eragina jasan duten langileentzako ohiz kanpoko laguntzak (3. deialdia)

2.- Araua

EBAZPENA, 2021eko apirilaren 22koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita COVID-19aren ondorioz ezarritako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen eragina jasan duten langileentzako ohiz kanpoko laguntzen hirugarren deialdia.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperresteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/05/2102613e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

COVID-19ak ekarritako osasun-krisiak eta hari aurre egiteko deklaraturako alarma-egoerari lotutako neurriek enpresen jarduera etetea edo murriztea eragin dute, eta ondorio masiboa izan dute soldatako langileen enpleguan, kalte handia jasan baitute, beren kontratuak eten edo lanaldia murriztu zaizkielako aldi baterako enplegu-erregulazio espedienteak ezarrita, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Dekretu Legearen 22. eta 23. artikuluen babesean.

Beren lan-kontratuak eten edo lanaldia murriztu eta langabezia-prestazioa kobratzen hasi diren pertsonak, enplegua mantenduta ere, baliagarri dituzten errentak nabarmen urritu izana jasaten ari dira aldi honetan, eta egoera hori bereziki nekeza da soldatarik txikienak dituztenentzat.

Egoera horretaz jabetuta, Euskadiko Elkarrizketa Sozialaren Mahaiko Enplegu Taldeak lehentasunezko iritzi dio kalteberatasun handieneko egoeran dauden pertsonak babesteari, eta beharrekotzat jotzen du ezartzea, normaltasuna berreskuratzeko fase progresibo honetan, enplegua sustatzeko neurriekin batera, soldatarik txikienak dituzten langileen langabezia-prestazioa osatzeko laguntza bat. Helburua da errenta-urritasun hori, nolabait ere, berdintzea eta, ahal den neurrian, pertsona horiei laguntzea, haien beharrak asetzeko moduko bizi-maila duin bati eutsi diezaien. Ondorio horretarako izenpetu du, 2020ko ekainaren 18an, osagarri hori arautzeko oinarriak ezartzen dituen aurreakordio bat.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren borondatea da, enplegu eta gizarte-kohesioaren inguruko gaietan dituzten eskuduntzen eta xedeen egikaritzan, eta dagozkien eginkizunak betez, helburu horri erantzuna ematea.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Jasotako eskabideak: 1.275

959 emakida, guztira: 421.461,67 €

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Dirulaguntzen Plan Estrategikoan ez da inolako adierazlerik jasotzen		



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

COVID-19aren ondoriozko aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen eragina jasan duten langileentzako ohiz kanpoko laguntzak (4. deialdia)

2.- Araua

EBAZPENA, 2021eko uztailaren 14koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita COVID-19aren ondorioz ezarritako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen eragina jasan duten langileentzako ohiz kanpoko laguntzen laugarren deialdia.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/07/2104224e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

COVID-19ak ekarritako osasun-krisiak eta hari aurre egiteko deklaraturako alarma-egoerari lotutako neurriek enpresen jarduera etetea edo murriztea eragin dute, eta ondorio masiboa izan dute soldatiko langileen enpleguan, kalte handia jasan baitute, beren kontratuak eten edo lanaldia murriztu zaizkielako aldi baterako enplegu-erregulazio espedienteak ezarrita, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Dekretu Legearen 22. eta 23. artikuluen babesean.

Beren lan-kontratuak eten edo lanaldia murriztu eta langabezia-prestazioa kobratzen hasi diren pertsonak, enplegua mantenduta ere, baliagarri dituzten errentak nabarmen urritu izana jasaten ari dira aldi honetan, eta egoera hori bereziki nekeza da soldatarik txikienak dituztenentzat.

Egoera horretaz jabetuta, Euskadiko Elkarrizketa Sozialaren Mahaiko Enplegu Taldeak lehentasunezko iritzi dio kalteberatasun handieneko egoeran dauden pertsonak babesteari, eta beharrekotzat jotzen du ezartzea, normaltasuna berreskuratzeko fase progresibo honetan, enplegua sustatzeko neurriekin batera, soldatarik txikienak dituzten langileen langabezia-prestazioa osatzeko laguntza bat. Helburua da errenta-urritasun hori, nolabait ere, berdintzea eta, ahal den neurrian, pertsona horiei laguntzea, haien beharrak asetzeko moduko bizi-maila duin bati eutsi diezaie. Ondorio horretarako izenpetu du, 2020ko ekainaren 18an, osagarri hori arautzeko oinarriak ezartzen dituen aurreakordio bat.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren borondatea da, enplegu eta gizarte-kohesioaren inguruko gaietan dituzten eskuduntzen eta xedeen egikaritzan, eta dagozkien eginkizunak betez, helburu horri erantzuna ematea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Jasotako eskaerak: 1.408

1.242 emakida; guztira: 451.533,33 €.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Dirulaguntzen Plan Estrategikoan ez da inolako adierazlerik jasotzen		



1.- Diru-laguntza-programaren izenburua

Lanbide-orientazioko ekintzak garatzeko diru-laguntzak

2.- Araua

1. Administrazio Kontseiluak 2018ko abenduaren 26ko bilkuran hartutako akordioa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan lanbide-orientazioko ekintzak eta zerbitzuak garatzeko 2019-2021 aldirako laguntzen deialdia onartzen duena. II., III. eta IV. kapituluak (Argitaratzeko ebazpena: 2018/12/26 – EHAA, 250. zk., 2018ko abenduaren 31koa).

2. Administrazio Kontseiluak 2021ko maiatzaren 25eko bilkuran hartutako akordioa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan lanbide-orientazioko ekintzak eta zerbitzuak garatzeko 2021-23 laguntzen deialdia onartzen duena. II. kap. eta III. kap. (Argitaratzeko ebazpena: 2021/05/26 -2021eko ekainaren 15eko EHAA, 116. zk.).

3. Administrazio Kontseiluak 2021ko ekainaren 15eko bilkuran hartutako akordioa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan enplegu-zentroen jarduera garatzeko 2021-22 laguntzen deialdia onartzen duena. III. kap. (Argitaratzeko ebazpena: 2021/06/16 -2021eko ekainaren 30eko EHAA, 128. zk.).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

1. <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/12/1806418e.pdf>

2. <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/06/2103401e.pdf>

3. <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2021/06/2103731e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Bi lerroetan zatituriko lanbide-orientazioko ekintzak eta zerbitzuak garatzeko dirulaguntzak dira. Alde batetik, populazio orokorrera zuzendutako lanbide-orientazioko ekintzak, eta bestalde, desabantaila egoeran dauden kolektiboetako pertsonentzat zuzendutakoak. (2021. Urtean zehar bi deialdi ezberdin garatzen dira: 2019-2021 eta 2021-2023)

Honekin batera, populazio orokorrera zuzendutako enplegu zentroetako zerbitzuak prestatzeko dirulaguntzak gehitzen dira. (2021. Urtean zehar bi deialdi ezberdin garatzen dira: 2019-2021 eta 2021-2022)

Akordio hauen bidez, enplegu-zentroen ezaugarriak, desabantaila-egoeran dauden kolektiboak eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzutik kanpoko erakunde espezializatuen laguntza behar duten orientazio-ekintzak eta -zerbitzuak zehazten dira, eta horiek finantzatzeko laguntzen deialdia egiten da.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

	Gizonak	Emakumeak	GUZTIRA
Populazio Orokorrentzako Orientazioa (2019-2021 Deialdia)	8.577	10.324	18.901
Populazio Orokorrentzako Orientazioa (2021-2023 Deialdia)	2.000	2.373	4.373
Gizarte-bazterketa egoeran dauden kolektiboentzako orientazioa (2019-2021 Deialdia)	4.883	4.813	9.696
Gizarte-bazterketa egoeran dauden kolektiboentzako orientazioa (2021-2023 Deialdia)	314	221	535
Ezintasuna daukaten kolektiboetako zuzendutako orientazioa(2019-2021 Deialdia)	1.486	921	2.407
Ezintasuna daukaten kolektiboetako zuzendutako orientazioa(2021-2023 Deialdia)	157	88	245
Ijito-komunitateari zuzendutako orientazioa(2019-2021 Deialdia)	343	466	809
Ijito-komunitateari zuzendutako orientazioa(2021-2023 Deialdia)	31	57	88
Espetxeratutako Kolektiboetako zuzendutako orientazioa (2019-2021 Deialdia)	210	17	227
Espetxeratutako Kolektiboetako zuzendutako orientazioa (2021-2023 Deialdia)	80	16	96
Enplegu Zentroak (2019-2021 Deialdia)	6.208	5.668	11.876
Enplegu Zentroak (2021-2022 Deialdia)	521	369	890
GUZTIRA	24.810	25.333	50.143

Aurrekontuaren Betearazpena:

- 2019-2021 Deialdian (ORI-COLEC_CEMP): **2.357.046,03 euro** (2021 konprometituko %61,29)
- 2021-2023 Deialdian (ORI-COLEC): **2.276.585,60 euro**. (2021eko ordaintzeko kredituaren %99,25)
- 2021-2022 Deialdian (CEMP): **721.600,00 euro**. (2021eko ordaintzeko kredituaren %95,34)

2021eko aktibitatea:2019-2021 Deialdiak (ORI-COLEC-CEMP)

- Orientazio orokorra (ORI): 2021eko urtarrilaren 1etik, 2021eko uztailaren 9ra arte
- Kolektiboentzako orientazioa (COLEC): 2021eko urtarrilaren 1etik, 2021eko uztailaren 9ra arte
- Enplegu zentroak (CEMP): 2021 urtarrilaren 1etik, 2021eko uztailaren 30era arte

2021-2023 Deialdiak (ORI-COLEC)

- Orientazio orokorra (ORI): 2021eko urriaren 30tik abenduaren 31ra arte
- Kolektiboentzako orientazioa (COLEC): 2021eko azaroaren 30tik, abenduaren 31ra arte

2021-2022 Deialdiak (CEMP)

- Enplegu zentroak (CEMP): 2021 abenduaren 14tik 31ra arte



Erabilgarritasuna eta eragin soziala

Lanbiden inskribatutako pertsoneri, orientazio prozesuetan ziurtatutako esperientzia daukaten entitateen bidez, arreta emateko mekanismoa da, bulegoetan egindako orientazio prozesuetako indargarri bezala.

Pertsonen beharretara hobeto egokitzen den zerbitzua emateko, badaude laneratzeko ezintasun bereziak dauzkaten kolektiboari arreta ematen espezializatu diren entitateak. Azken kasu honetan, diru-laguntza hau izango ez balitz, kolektibo hauek arreta pertsonalizatu batera helduko lirateke baina espezializazio barikoa, beraien orientazio prozesuan gabeziak sortzeko arriskuarekin.

Amaitzeko, orientazio ekintzak indartzeko, enplegu zentroak izeneko guneei diru-laguntzak ematen zaizkie. Bertan, lana bilatzen ari diren pertsonak erreminta teknologikoak erabil ditzakete.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza (2021)
2019ko Plana Estrategikoa - 2019-2021 Deialdia		
Enplegu-zentroetan arreta emandako pertsonen kopurua	40.000 (2019-2021)	11.876 (2021-07-31era arte)
Orientazio entitate laguntzaileetan arreta emandako pertsonen kopurua	50.000	32.040 (2021-07-31era arte)
2021ko Plana Estrategikoa - 2021-2023 Deialdia		
Orientazio entitate laguntzaileetan arreta emandako pertsonen kopurua	45.000 (2021-2023)	5.337 (2021/11/21etik aurrera)
Enplegu-zentroetan arreta emandako pertsonen kopurua	15.000 (2021-2023)	890 (2021/12/1etik aurrera)
2021ko Plana Estrategikoa - 2021-2022 Deialdia		
Entitate laguntzaileetan enplegu zentroyen kopurua	42 (2021-2023)	41 (2021/12/1etik aurrera)



1.- Dirulaguntzen Programaren izenburua

Laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak (30 urtetik gorako luzaroko langabeak) kontratatzeko laguntzak

2.- Arau erregulatzaileria

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2021eko martxoaren 23ko bilkuran hartutako erabakia; haren bidez, 30 urtetik gorako luzaroko langabeak EAEko lantokietan kontratatzeko laguntzen 2021eko ekitaldirako deialdia onartu zen.

3.- Arauaren, deialdiaren eta emakida-ebazpenaren argitalpena (EHA Arako hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/04/2102106a.pdf>

4.- Dirulaguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak

EAEko enpresek 30 urtetik gorako luzaroko langabeak kontratu mugagabeen edo 6 hilabeteko edo gehiagoko aldi baterako kontratuen bidez kontratatzeko laguntzak, EAEko lan-merkatuan txertatzeko aukera bultzatzeko. Kontratuak lanaldi osoak edo lanaldi partzialekoak (ezarritako lanaldiaren % 70ekoak gutxienez) izan daitezke.

Dirulaguntzaren zenbatekoari dagokionez, urteko ordainsari gordinaren gutxieneko zenbateko batzuk ezartzen dira, eta kontratuaren iraupenaren eta kontratatutako pertsonaren titulazio-mailaren arabera finkatzen dira. Laguntzak handiagoak dira luzaroko langabeen artean honako hauek kontratatzen direnean: a) Emakumeak edo 45 urteko edo gehiagoko pertsonak (% 15); b) 2020an edo 2021ean Lanbideren prestakuntza-ekintza bat (kontratatzeko konpromisoarekin) amaitu duten pertsonak, betiere kontratua gutxienez 12 hilabetekoa bada eta lanaldia ezarritako lanaldiaren gutxienez % 70ekoa bada (% 10); c) Kontratatutako pertsonak a) eta b) ataletako baldintzak betetzen baditu, dirulaguntzaren zenbatekoa % 20 handiagoa izan daiteke gehienez.

Lerro horren helburuak honako hauek dira:

EAEEn bizi diren eta gaur egun luzaroko langabeak (360 egun lanik gabe azken 540 egunetan) egoera horretatik atera daitezen eta EAEko lan-merkatuan txerta daitezen sustatzea.

Enpresek luzaroko langabeak kalitate-enpleguen bidez kontrata ditzaten sustatzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren exekuzioa, baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Lortutako emaitzak

Enpresa eskatzaileen kopurua: 106

Eskatutako kontratazio-postuen kopurua: 107



Enpresa onuradunen kopurua: 70

Emandako kontratuen kopurua: 70

Aurrekontuaren exekuzioa

Deialdi honetako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 1.410.000 eurokoak dira; horietatik, 705.000 euro 2021eko aurrekontuko arruntekoak dira, eta beste 705.000 euro 2022ko konpromiso-aurrekontukoak.

2021ean gauzatutako aurrekontu arrunta: 586.644.-€

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan 2020ko abenduko langabeziari buruz erregistratutako datuen arabera, langabeen % 52,2 luzaroko langabeak dira. Luzaroko langabeen kopurua handiagoa da adin-tartean gora egin ahala. Ildo horretan, 30 urtetik beherako pertsonak luzaroko langabeen % 11,4 dira, 30-44 urteko pertsonak % 28,0, eta 45 urtetik gorakoak, berriz, % 60,7. Genero-desberdintasunak esanguratsuak dira: luzaroko langabeen % 59,4 emakumeak dira, % 40,6 gizonak. Desberdintasun hori adin-tarte guztietan agertzen da, eta, nolana ere, handiagoa da 45 urtetik beherakoen kasuan 45 urtetik gorakoen kasuan baino.

Bestalde, Europar Batasuneko Kontseiluak luzaroko langabeak lan-merkatuan txertatzeari buruz emandako Gomendioaren (2016/C 67/01) arabera, luzaroko langabeziak pertsonak kaltetzeaz gain, Europar Batasuneko ekonomien hazkunde-potentziala murrizten du, gizarte-bazterketaren, pobreziaren eta desberdintasunaren arriskua areagotzen du eta gizarte-zerbitzuen eta finantza publikoen gastuak handitzen ditu. Luzaroko langabeziak, halaber, diru-sarreraren galera, lanbide-gaitasunen narriadura, osasun-arazoaren intzidentzia handiagoa eta familien pobreziaren areagotzea dakartza.

Aurreko guztian oinarrituta, enpresek luzaroko langabeak kontratatuzko aukera sustatzeak eta pertsona horiek lan-merkatuan txertatzeko aukera bultzatzeak garrantzi soziala eta lehentasunezko interesa dute enplegu-politika gisa.

6.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Txertatutako pertsonen kopurua	195	70



1.- Dirulaguntzen Programaren izenburua.

Enplegu lagunduko jarduketetara bideratutako laguntzak

2.- Arau erregulatzaileria.

Erabakia, 2021eko apirilaren 21eko bilkuran hartutakoa, zeinaren bidez onartu baita urriaren 29ko 168/2019 Dekretuan aurreikusitako enplegu lagunduko jarduketetarako laguntzen 2021. urterako deialdia. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegagarritasunarekin lotutako programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa arautzen dira.

(2798 Ebazpena, 2021/04/22koa - 2021eko maiatzaren 17ko EHAA)

3.- Arau erregulatzaileraren argitalpena, deialdia eta emakidaren ebazpena (Esteka EHAARA).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/05/2102798a.shtml>

4.- Dirulaguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak.

Deskribapena: Enplegu lagunduko jarduerak egiteko laguntzak eta pizgarriak arautzen ditu, desgaitasuna eta laneratzeko zailtasun handienak dituzten pertsonak lan-merkatu arruntean laneratzeko tresna izateko eta enpresei laguntzeko, bai kontratatu aurretik, bai pertsona lanpostua betetzen hasi ondoren. Hala, enplegu lagunduko unitateetako profesional espezializatuek (lan-arloko prospekziogileek eta prestatzaileek) ematen dute laguntza hori, zenbait jarduera integritatearen bidez.

Helburua: Enplegu lagunduko unitateen jarduera diruz laguntzeko, konpromiso batzuk hartu eta helburu batzuk bete behar dira, hala nola, desgaitasuna eta laneratzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen enpleguko eta laneratzeko aukeren prospekzioak egitea. Pertsona horiek Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda egon behar dute, enplegu-eskatzaileria gisa. Honako pertsona hauen laneratzeari lehenetsiko da:

- desgaitasun intelektuala, buru-gaixotasuna edo garuneko paralisia duten pertsonak, % 33ko edo hortik gorako desgaitasun-gradua onartua dutenak.
- desgaitasun fisikoa edo zentzumenezkoa duten pertsonak, % 65eko edo hortik gorako desgaitasun-gradua onartua dutenak; edo gorra edo entzuteko desgaitasuna duten pertsonak, %33ko edo hortik gorako minusbalotasun-gradua onartua dutenak.

Desgaitasuna duten emakumeen laneratzeari bultzatzeko, % 10 handituko da dirulaguntzaren zenbatekoa, baldin eta emakume bat kontratatzen bada.

Halaber, zehaztutako desgaitasun mota horiek dituzten langileak, enplegu-zentro berezietan aritutakoak, lan-merkatu arruntean laneratzeari aurreikusten da, bai eta dagokion deialdiaren aurreko urteetan laneratzeko pertsonen eta enpresei laguntzea ere.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren exekuzioa, baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Enplegu lagunduko ekipo kopurua: 9

Desgaitasuna duten pertsonen egindako kontratuen kopurua: 77 (eskabide baietsiak: 94)

Desgaitasuna duten pertsonen kopurua jarraipen-prozesuetan: 180 (eskabide baietsiak 193)

Enpresetara egindako bisita kopurua: 1.960 (eskabide baietsiak: 1.843)

Jarduketan justifikazioa aurkezteko epea 2022/03/31n amaitzen da; beraz, lortutako emaitzen datuak aurkeztutako justifikazio-memorietan oinarritzen dira, eta berrikusi egin behar dira.

Aurrekontuaren exekuzioa.

Deialdi honen xede diren laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 1.000.000 eurokoak dira. Horietatik, 500.000 euro Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren 2021eko aurrekontu arruntari egokituko zaizkio, eta beste 500.000 euro, 2022ko aurrekontu arruntari.

Exekutututako aurrekontua 2021: 500.000 € (%100)

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina.

2021ean dirulaguntzari egotzitako laneratzeetan oinarrituta, aurreikusitako laneratzeen % 82 lortu da (77/94), eta aurreikusitako pertsonen % 93ri enpleguaren jarraipena egin zaio (180/193). 2021ean sinatutako kontratu berrien datuek adierazten dute desgaitasuna duten pertsonen laneratzeak berreskuratu egin direla, 2020an izandako beherakada handiarekin alderatuta. Hala ere, desgaitasuna duten pertsonentzat merkatu arruntean lortutako kontratu kopuruaren erreberazioa ezin zaio aplikatu sexuaren arabera laneratzeari. Izan ere, desgaitasuna duten emakumeek ehuneko puntu batean antzeman dute sexuen arteko desberdintasuna, 2020. urtearekin alderatuta. Hala, 2021ean lortutako kontratuen % 61 gizonekin sinatu dira, eta % 39 emakumeekin.

Hortaz, lan-giro normalizatuetan desgaitasuna duten langileen presentzia sustatzea da zerbitzu horren helburua, eta beste ekintza publiko batzuekin batera, desgaitasuna duten pertsonen laneratzea ere sustatzen du; hala, estatu mailan, Euskal Autonomia Erkidegoa da jarduera- eta enplegu-tasa altuenetakoa dituen autonomia-erkidegoa, eta desgaitasuna duten pertsonen langabezia-tasa, berriz, baxuenetakoa.

6.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Enplegu lagunduko talde kopurua:	9	9
Desgaitasuna duten pertsonen egindako kontratuen kopurua	60	77
Desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko jarraipenen kopurua	145	180